

Proposamen-mota: EBAZPENA Espediente zk.: SAMELEC / 2020 / 168
Alorra Hezkuntza, Herritarren Proposamen-kodea:
Partaidetza eta Gazteriako
Alorra
Departamentua: Gazteria

GAIA: LANAK AURKEZTEKO EPEA ALDATZEA HAUR ETA GAZTEENDAKO LITERATUR LEHIAKETETAN

----- TESTU PROPOSATUA -----

«Ikusirik, batetik, Hezkuntza, Herritarren Partaidetzako eta Gazteriako zinegotzi ordezkariak 2020ko martxoaren 2an eta 20an emandako ebazpenak, zeinetan hurrenez hurren onesten baitziren 2020ko GAZTEENDAKO IRUÑEKO LITERATUR LEHIAKETA-DEIALDIAren eta 2020ko HAURRENDAKO IRUÑEKO LITERATUR LEHIAKETA-DEIALDIAren oinarriak, eta bestetik, espedientearen jasotako txostenak

HONAKO HAU EBAZTEN DUT:

1.- 2020ko Haur eta Gazteendako Iruñeko Literatur Lehiaketa-deialdietako 5. oinarria aldatzea, halako eran non honela idatzita geldituko baita:

“Lanak aurkezteko epea ebazpen honen onespeneren iragarkia Nafarroako Aldizkari Ofizialean argitaratzen den unetik aurrera hasiko da, eta 2020ko ekainaren 20an amaituko”.

----- PROPOSAMENAREN BUKAERA -----